

## PRENTSA-OHARRA

# **Kutxabankek eta Gipuzkoako Bazkundeak 85 milioirainoko finantzaketa-lerroa ireki dute ETEen kanpo-merkataritza bultzatzeko**

- ‘Exporta +’ programaren edizio berriak bi helburu ditu: esportazioak indartzea 50 milioi eurorainoko lerroarekin, eta inportazioak erraztea 35 milioirekin
- Kutxabanken finantzaketa nazioarteko merkataritza-eragiketetarako %6,3 hazi da 2016an

**2017ko maiatzaren 2a.** Gipuzkoako Bazkundearen eta Kutxabanken ‘Exporta +’ programaren edizio berriak **30 milioi euroko** finantzaketa-lerroa jarri du enpresa elkartuen eskura, 50 milioira **hedatu daitekeelarik**, lurraldean diharduten ETEen esportazioak bultzatzeko.

Lankidetzeta-hitzarmena **Endika Sánchez Aguirrek**, Gipuzkoako Bazkundeko idazkari nagusiak, eta **Fernando Irigoyenek**, Kutxabankeko Handizkako Negoziorako alboko zuzendari nagusiak izenpetu dute. Honela, bi erakundeek berriro egin dute Gipuzkoako ETEen esportazio- eta inportazio-jarduera bultzatzeko eta **hauen lehiakortasuna atzerrian hobetzeko** daukaten konpromisoa.

Akordioan ‘**Inportazioen Finantzaketa**’ programari eustea ere sartu da; **20 milioi euroko** kopurua dago honetarako, eta beste 15 milioiraino gehitu daiteke.

**Gipuzkoako Bazkundeak** Gipuzkoako enpresa eskura jarriko du **nazioartekotzeko zerbitzu-eskaintza integrala** (nazioarteko aktibitatean back office-a, merkataritza-aholkularitza, kontratazioa eta nazioarteko fiskalitatea, pertsonen hautaketa eta deserriratzeak, ...), baita nazioarteko 80 merkatutan baino gehiago dituen laguntzaileen sarea ere.

## **Atzerriko merkataritzaren gehikuntza handia 2016an**

Esportazio- eta inportazio-jardueretan Gipuzkoako ETEei laguntzeko konpromisoa mantentzen dute Gipuzkoako Bazkondeak eta Kutxabankek, nazioarteko merkataritzaren **susperraldiaren testuinguruan**.

Hori erakusten dute Kutxabankek darabiltzan finantzaketa-datuek. Finantza Taldeak 2016an **360 milioi euro** erabili zituen guztira enpresen **nazioarteko merkataritza**-eragiketak (esportazioak nahiz inportazioak) erraztu eta bultzatzeko, eta horrek **%6,3 gehiago** esan nahi du aurreko urtekoaren aldean.

Bilakaera positibo horren barruan, bereziki deigarria izan zen **esportazioen** portaera. Inportazioetarako finantzaketaren kurba egonkor samar mantendu zen bitartean, esportazio-jarduerarako **%13** gehitu zen.

Argibide gehiago

**Gipuzkoako Bazkondea**

[ibengoetxea@camaragipuzkoa.com](mailto:ibengoetxea@camaragipuzkoa.com) / 688884347

**Kutxabank**

[kutxabank.es](http://kutxabank.es) / 94 401 82 92